

## **FUNTSEZKO ELKARTEAK**

Funtsezko elkarteak sortzerakoan, *Samsung* enpresarekin elkartzea okurritu zitzaigun, elkarrekiko konpetidoreak ez diren enpresen arteko aliantza estrategikoa aplikatuz. Egia da baliabideei dagokienez lehiakideak izan gaitezkeela baina haien eta gure produktuak alderatuz hori da harremanean dugun ezaugarri bakarretarikoa.

The Samsung logo is displayed in white, bold, uppercase letters on a black rounded rectangular background.

Oso garrantzitsua izango da enpresa hau gure proiektuan bitalak diren ondasun, zerbitzu edo baita baliabideak partekatzen baititugu.

Enpresa honekin egindako aliantza bi modutan sailkatuko dugu; Teknologikoki eta salmenta bidez.

- Teknologikoki: Gure produktuaren teknologia haien esku lagatzen dugu. Lehorgailuen funtzionamenduan datza beste lehorgailuak baino gutxiago kaxkartzea ilea. Nola? Ba, teknologia bidez, lehorgailuak duen sensore batek gure ilean dugun hezetasuna neurtu eta horren arabera airearen tenperatura igo edo jeitsi egiten du. Horrela, gure bezeroen ilearen osasuna zaindu dezakegu.
- Salmenta bidez: Haien denda ofizialetan gure produktua salduko dute. *Samsung* enpresak elektronikarekin zerikusia dituen produktuak saldu arren, ez dira sartu oraindik ile-lehorgailu, plantxa, etab. produktuen mundura eta guk aukera hori ematen diegu.



Aliantza honei esker, arriskuak murrizten ditugu. *Samsung* enpresa munduko handienetariko bat izanda eta haien aurrerapen teknologikoak ikusita, badakigu haien esker gure produktuak ez direla izango kaltegarriak bezeroentzako.

Baliabideei dagokienez, gure enpresek daukaten harremanari esker ez dira egongo zailtasunik. Baliabide berdinak behar ditugu, beraz, gure hornitzaileak berdinak dira.